**11.- Aprobación inicial de la 1ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, relativa al Área 05: Basanoaga/Sorgintxulo, Área 07: Alaberga, Área 14: Centro, Área 21: Larzábal, Área 22: Las Agustinas, Área 28: Egiburu y al Sector 39: Larzábal-arragua.**

**Antecedentes.-**

Alkatetzak 2005eko uztailaren 21ean emaniko ebazpen baten bidez, besteak beste, birretsi ziren Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren 1. Aldaketako aurrerakinaren hainbat udal eremuko (05 Areako Basanoaga/Sorgintxulo, 14 Areako Erdialdea, 22 Areako Agustinak, 28 Areako Egiburu eta 39 Sektoreko Larzabal/Arragua) irizpideak, helburuak eta konponbide orokorrak, beti ere 2005eko maiatzan Gorka Arregi Gaztañaga arkitektoak idatzitako dokumentuaren arabera. Horrez gain, halaber agindu zen hasiera izaeran onartzeko dokumentua irizpide horien arabera eta jendaurrean egondako garaian eginiko iradokizunak kontuan hartuta egiteko agindua eman zen.

Mediante Resolución de Alcaldía, de fecha 21 de julio de 2005, se dictó, entre otros, ratificar los criterios, objetivos y soluciones generales del avance de la 1ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, referente a distintos ámbitos del término municipal (Area 05:Basanoaga/Sorgintxulo, Area 14: Centro, Area 22:Las Agustinas, Area 28:Egiburu y Sector 39:Larzabal/Arragua.), según documento redactado en mayo de 2005 por el arquitecto Gorka Arregi Gaztañaga, y así mismo, se dictó que se procediera a la elaboración del documento de aprobación inicial en función de dichos criterios, así com de la estimación de las sugerencias producidas durante la fase de exposición pública.

Erabaki hori dokumentua idatzi zuen Gorka Arregi Gaztañagari jakinarazi ondoren, Gorkak, 2005eko irailaren 12an, HAPOren 1. Aldaketa hasiera izaeraz onartzeko dokumentu berri bat aurkeztu zuen, hain zuzen aurreko paragrafoan zehazturiko areei zegokiena, 2005eko irailean idatzia.

Tras comunicar dicho acuerdo al redactor del documento, Gorka Arregi Gaztañaga, para su elaboración, éste presenta con fecha 12 de septiembre de 2005 nuevo documento de aprobación inicial de la 1ª Modificación del PGOU, referida a las áreas que se especifican en el párrafo anterior, y que ha sido redactado en septiembre de 2005.

2005eko irailaren 15ean, udal bulego teknikoko zuzendari Enrique Pontek dokumentuari hasierako onespena ematearen aldeko txostena egin zuen, alabaina HAPOan akats bat aurkitu duela adierazten du, Altzate 16 Areako Arau Partikular bati buruzkoa, eta beraz, hori zuzendu egin behar dela, gaineratzen du.

Con fecha 15 de septiembre de 2005, el director de la oficina técnica municipal Enrique Ponte, emite informe favorable al documento presentado para la aprobación inicial, señalando únicamente que se ha detectado un error material en el vigente PGOU, en lo referente a la Norma Particular del Area 16:

Altzate, por lo cual deberá de corregirse.

2005eko irailaren 15ean, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak berari zegokion txosten juridikoa egin zuen, idazkari nagusiak ontzat emana.

Con fecha 15 de septiembre de 2005, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, emite informe jurídico correspondiente, conformado por el Secretario General.

Hirigintza batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

Ondokoak mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, gai hau Hirigintza batzordean ikusi zuten eta bertan, besteak beste, transkripzio akatsak, eremu publikoan igogailuak jartzeak eragindako aldaketa, etab. jasotzen dira.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, como todos recordarán este asunto se trató en la Comisión de urbanismo e incluye desde errores de transcripción, hasta modificaciones derivadas de la instalación de ascensores en terreno público, etc.

* Maestro jaunak (EB-IU) mintzaldi laburra egingo duela esan du, batez ere Hirigintza batzordeak ez diren partaideekiko kortesiagatik zabalduko ditu alkateak emaniko datuak. Horrela, Plan Orokorrak bi urte baditu ere abian dagoela, eguneratu behar den dokumentu bizia da. Lehenengo kontua, alkateak aitatu duen moduan, akats-zuzenketa da, zenbait idazkariak proposamena irakurri duenean aitatu dituenak, hots, Altzate eta Alabergan. Horrezaz gain, dokumentuan bertan bi etxebizitza zatitzea aurreikusten da, hau da, Lartzabalen 190 m2 zeuzkanean bi etxebizitza egingo dira, beste bat erdialdean, 120 m2 baino gehiago izango dituena, egun merkataritza-erabilera duena eta

* Interviene el Sr. Maestro (EB-IU) manifestando que va a intervenir brevemente, sobre todo por cortesía hacia los miembros que no pertenecen a la Comisión de Urbanismo, va a ampliar un poco los datos aportados por el Sr. Alcalde. Después de dos años que lleva en funcionamiento el Plan General, se trata de un documento vivo que requiere de actualizaciones. El primer fundamento, como ha dicho ya el Alcalde, es la corrección de errores materiales, algunos ya han sido mencionados por el Secretario en su lectura, concretamente en Alzate y en Alaberga. Además, dentro del propio documento se contempla la subdivisión de dos viviendas, una nueva, concretamente en Larzabal,

bizitoki bihurtu eta bi etxebizitza egitera uzten zaiona. Horrezaz gain, batez ere Agustinetan aprobetxamendu-aldaketa zenbait egingo dira, hain zuzen 100 egoiliar eguneko 24 orduetan eta 30 eguneko zentroan izango dituen egoitza bat egin ahal izateko 600 metro gehiago aprobetxamendu ateratzea uzten delako. Egiburu Zaharra aldean ere aprobetxamendu berriren bat ateratzen da, finkaturiko gune bat da, eta beharrezko azpiegitura berriez hornitu ondoren, partzela bat atera da, eta ondorioz, hirigintza-aprobetxamendu berri bat atera. Akatsak zeuzkaten aprobetxamendu zenbait kuantifikatu dira, eta gainera, bere aburuz, garrantzitsuena udalaren lursail-afera da, izan ere, Galtzaraborda aldean, mediku-zentro inguruan alegia, Udalaren jarduerak burutzeko 20 etxebizitza eraikitzea proposatzen baita. Amaitzeko, proposamenaren alde bozkatuko dutela, esan du.

que tenía una dimensión de 190 m2 y se permite hacer dos viviendas, y otra en el centro, de más de 120 m2, que actualmente tiene uso comercial y se le permite un uso residencial y hacer dos viviendas. Hay unas modificaciones de aprovechamiento, fundamentalmente en Agustinas, donde se permite sacar 600 metros más de aprovechamiento para posibilitar la puesta en marcha de una residencia en la que haya 100 residentes las 24 horas del día y 30 en centro de día. Hay algún nuevo aprovechamiento urbanístico que sale en la zona de Egiburu Zaharra, es una zona consolidada en la que, aparte de dotarla de las nuevas infraestructuras necesarias, sale una parcela y entonces se saca un nuevo aprovechamiento urbanístico. Se cuantifican también algunos aprovechamientos que tenían errores, y además, lo más importante, que es el tema de la parcela municipal donde se propone construir 20 viviendas en la zona de Galtzaraborda para resolver actuaciones municipales, concretamente donde está el centro médico. Para finalizar, añadir solamente que van a apoyar la propuesta.

* Burgos jaunak (EA) adierazi duenez, bera kide den aldeak puntu honetan abstenitu egingo da, hain zuzen Errenteria Antolatzeko Plana eztabaidatu zenean hartu zuen jarrera bera mantentzeko. Une hartan –dio- kasu batzuetan ez zetozelako bat erabaki hura hartu zuten, eta orain jarrera bera mantentzen dute. Gainera, abstentzio hori kasu

* Interviene el Sr. Burgos (EA) manifestando que su Grupo en este punto se va a abstener, manteniendo la misma postura que mantuvo en la discusión general del propio Plan de Ordenación de Errenteria. En aquel momento, las discrepancias en algunos casos les llevaron a adoptar esa determinación y ahora se mantienen en la misma

honetan indartuta dago kasu honetan egingo diren aldaketekin ez daudelako ados, batez ere, Basanoaga/Sorgintxulo 05 Areari dagokionean. Horrela, teknikariak han 20 etxebizitza eraikitzeko aitatzen duten arrazoietariko bat etxebizitza-beharra da. Eurek ere bat datoz etxebizitza-beharra dagoela, baina ez Basanoaga/Sorgintxulo aldean bakarrik, baizik eta Errenteria osoan. Euren ustez ez da irtenbiderik egokiena arazo hau konpontzeko etxebizitza libreak egitea, izan ere, etxebizitza-behar handiena dutenek, beharbada, ez dute inguru hartan atera litezkeen prezioan erosteko posibilitaterik. Horrezaz gain, pentsatzen dute egin diren beste obra batzuetan, hots, herrian oraintxe amaitu direnetan, ateratako arazoari irtenbidea emateko eginiko aldaketa dela pentsatzen dute. Era berean, pentsatzen dute inguru hori beste gauzetarako destinatu zitekeela, besteak beste, Basanoaga/Sorgintxulo aldea etxebizitzaz betea dagoelako. Puntu horiek guztiek kontuan hartuta, abstenitu egingo direla, gaineratu du.

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ulertzen duela EAren koherentzia esan du, alabaina gogorazi nahi du babes ofizialeko etxebizitzak egiteko etxebizitza libreak ere egin behar direla.

Mintzaldiak amaitutakoan.

línea. Pero además, esa abstención viene reforzada por la discrepancia con una de las modificaciones que se llevan a efecto en este caso, y se trata concretamente de las del Area 05 Basanoaga/Sorgintxulo. Una de las razones que se apunta en el informe de los técnicos para construir allí 20 viviendas nuevas es la necesidad de vivienda. Están de acuerdo en que hay necesidad de vivienda, y no solamente en la zona de Basanoaga/Sorgintxulo sino en todo Errenteria, pero creen que la vivienda libre no es la solución más idónea para solucionar ese problema, porque los que tienen más problema de vivienda igual no tienen posibilidad de acceder a una vivienda libre al precio que puede salir en aquella zona. Aparte, piensan que es una modificación para dar solución a un problema que se puso sobre la mesa con otras obras que se han ido realizando y que se acaban de finalizar en este momento en el municipio. También piensan que esa zona podía estar destinada a otros usos, pues Basanoaga/Sorgintxulo es ya una zona colmatada de viviendas. Debido a estos aspectos, su voto va a ser la abstención en este asunto.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que entiende la coherencia de EA en el punto, pero también quiere recordar que para que se hagan viviendas de VPO también tienen que construirse viviendas libres.

Finalizadas las

intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 16 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, PP, EAJ/PNV) eta 3 abstentzioz (EA), hots, Udalbatzaren gehiengo osoarekin,

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 16 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, PP, EAJ/PNV), que conforman mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, y 3 abstenciones (EA),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. **Onartzea hasierako izaeran *05 Areako Basanoaga/Sorgintxulo, 14 Areako Erdialdea, 22 Areako Agustinak, 28 Areako Egiburu eta 39 Sektoreko Larzabal/Arraguako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren 1. Aldaketa***, beti ere Gorka Arregi Gaztañaga arkitektoak 2005eko irailean idatzitako dokumentuaren arabera, eta HAPOan antzemandako akatsa zuzendu ostean, alegia, Altzate 16 Areako Arau Partikular bati buruzkoa, eta beraz,

1º- **Aprobar Inicialmente** la ***1ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana, referente a distintos ámbitos del término municipal (Area 05:Basanoaga/Sorgintxulo, Area 07: Alaberga, Area 14: Centro, Area 21: Larzábal, Area 22: Las Agustinas, Area 28:Egiburu y Sector 39: Larzabal/Arragua***), según documento redactado en septiembre de 2005 por el arquitecto Gorka Arregi Gaztañaga, y la corrrección del error material detectado en el PGOU, en lo referente a la Norma Particular del Area 16: Altzate, de manera que:

Bataz besteko aprobetxamendua = 0,71 $m^2(t)/m^2$ esaten duen lekuan

donde dice: Aprovechamiento medio = 0,71 $m^2(t)/m^2$

Zera esaten duela ulertuko da: bataz besteko aprobetxamendua = 0,43 $m^2(t)/m^2$

se entenderá que dice: Aprovechamiento medio = 0,43 $m^2(t)/m^2$

Dentsitatea: 48,07 viv/ha esaten duen lekuan.

donde dice: Densidad: 48,07 viv/ha.

Zera esaten duela ulertuko da: dentsitatea = 45,56 viv/ha.

se entenderá que dice:Densidad: 45,56 viv/ha.

2. Hil batez (1) **jendaurrean**

2º- **Someter a información**

**jartzea** aldaketako dokumentu hori, eta horren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean gehien saltzen den egunkarian ematea nahi duen orok alegazioak egin ditzan.

**pública** por el plazo de 1 MES, el documento de la citada Modificación, para lo que se insertarán anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en un diario de máxima difusión en el Territorio Histórico, al objeto de que se deduzcan las oportunas alegaciones.

3. **Etenda uztea** aldaketa honek eragindako eremu guztietan partzelatzeko, eraikitzeko eta eraisteko lizentzia-emateak. Hala ere, oraingo araudipean oinarrituriko lizentzia eman ahal izango dira baldin eta planeamendu berriko erabakiak errespetatzen badira.

3º.- **Suspender** el otorgamiento de licencias de parcelación, edificación y demolición para todos los ámbitos afectados por la presente modificación. No obstante, podrán concederse licencias basadas en el régimen vigente, siempre que se respeten las determinaciones del nuevo planeamiento.

**12. Hiri Hondakin Solidoen Udal Ordenantza Arautzailearen 1. Aldaketa hasiera izaeraz onartzeko proposamena.**

**12.- Aprobación inicial de la 1ª Modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de los Residuos Sólidos Urbanos.**

**Aurrerakinak.-**

1997ko ekainaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 112 zk.an, argitara eman zen Errenteriako hiri-hondakinak jasotzeko Udal Ordenantza.

Egun, aldiz, *Errenteriako hiri-hondakinak jasotzeko Udal Ordenantzaren* 10. artikulua aldatzeko proposamena egiten dugu.

2005eko abuztuaren 24an, udal

**Antecedentes.-**

En el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa nº 112 de fecha 16 de junio de 1997, se publicó la Ordenanza Municipal Reguladora de la recogida de residuos sólidos urbanos en el municipio de Errenteria.

En la actualidad, se ha formulado el proyecto de *Primera modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de la recogida de residuos sólidos urbanos en el municipio de Errenteria,* que implica la modificación del artículo 10º.

Con fecha 24 de agosto de

lege-aholkulari Vicente Castiellak gaiari buruzko txosten juridikoa egin du.

Orobat, 2005eko abuztuaren 25ean, udal industri ingeniari Gorka Ortigosak aldaketaren aldeko txostena egin du.

**Zuzenbide oinarriak.-**

Aplikatu dakiokeen legeria Tokiko Araubide-oinarrien Legearen 4.1.a), 22.2.d), 25.1 eta 25.2.h) eta l), 47.1, 49, 69.2, 70.2 eta 84 artikuluak; Tokiko Araubide gaietan indarrean dauden Lege-zehapenen Berreginiko Testuaren 55 eta 56 artikuluak; F.A.A.ren 172 artikulua eta Tokiko Udalbatzen Zerbitzu-araudiaren 5. artikulua eta ondorengoak.

Hirigintzako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Ondoko mintzaldia geratu da:

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez gaia ezagutu eta eztabaidatua izan da, alabaina gogorarazi edo argitu nahi du, bai Udalak proposatuta edo San Markos Mankomunitatea beraren eskutik, aldaketak egiteko moduan doala. Orain modu ezberdinak frogatzen ari dira, denak ere zerbitzuak hobeto aprobetxatzeko eta hondakin-bilketa eraginkorrago bat egiteko xedearekin eginak, adibidez,

2005, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, ha emitido informe jurídico al respecto.

Igualmente, con fecha 25 de agosto de 2005, el ingeniero industrial municipal Gorka Ortigosa, ha emitido informe favorable a la modificación propuesta.

**Legislación aplicable.-**

La legislación aplicable viene establecida en los artículos 4.1.a), 22.2.d), 25.1 y 25.2.h) y l), 47.1, 49, 69.2, 70.2 y 84 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F. y artículo 5 y siguientes del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

Se produce la siguiente intervención:

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que el tema ya se conoce y se ha debatido, pero quiere recordar o aclarar que va en la línea de posibles modificaciones futuras, bien a propuesta del Ayuntamiento o a instancia de la propia Mancomunidad de San Marcos. Se está en una fase de distintas acciones, todas ellas tendentes al mejor aprovechamiento en los servicios y de incidir de manera más

hondakin asko sortzen duten tokietan, hain justu modu horretan jardunez gero, hobeto sailkatu ahal izango litzakeelako, eta halaber, ahalbideratuko lukeelako denen ahotan dabilen birziklapena, materia organikoa, konposta, etab. Eta berriro dio, gauza horiek kontuan hartuta, aurrerantzean gauzak aldatu behar izango dituztela, bakarrik herrian edo San Markos Mankomunitateren eskutik, denak hoberako izango direneko itxaropenarekin.

Mintzaldia amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

**E R A B A K I D U**

1. **Onartzea** hasierako izaeran ***Errenteriako hiri hondakin solidoak jasotzeko udal ordenantzaren lehenengo aldaketa,*** hots, espedientearekin batera eranskin gisa doana.

2. **Jendaurrean jartzea** 30 egunez, eta horretarako iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizilean, lurraldean gehien saltzen den egunkarian eta Udaleko iragarki-oholean argitara emango da, hain zuzen nahi duenak erreklamazio eta iradokizunak egin ditzan, horiek, egiten badituzte, Udalbatzak erabakiko dituelarik. Aitzitik, inork ez balu egingo, behin-betikotasunez onartutzat joko da.

eficaz en las recogidas, por ejemplo, de grandes generadores de residuos, porque eso permitirá una mejor clasificación. Y en todo ese tema tan candente de los reciclajes, de la materia orgánica, del compostaje, etc. reitera que en esa línea les llevará a tener que modificar, sea cada municipio aisladamente, sea conjuntamente a través de la Mancomunidad de San Marcos otro tipo de modificaciones que espera sean todas ellas mejoras.

Finalizada la intervención.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**A C U E R D A**

1º.- **Aprobar inicialmente** el proyecto de ***Primera modificación de la Ordenanza Muncipal de recogida de desechos y residuos sólidos urbanos en el municipio de Errenteria,*** que se adjunta como anexo al expediente.

2º.- **Exponerla** a información pública por el plazo de 30 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia, así como en el Tablón de Anuncios Municipal, a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la Corporación. De no producirse, la Modificación se considerará definitivamente aprobada.

**13. Eremu publikoan edo jendea ibiltzeko lekuetan terrazak eta mahaitxoak jartzeko Udal Ordenantza Berria hasira izaeraz onartzeko proposamena.**

**Aurrerakinak.-**

Udalbatzak, 1984ko apirilaren 4an eginiko osoko bilkuran, onartu zuen *kafe-mahaiak eta mahaitxoak eremu publikoan jartzea arautzen duen ordenantza.*

Hala ere, Udalak uste du ordenantza hori une hauetako irizpide sozialetara egokitzea beharrezkoa dela, eta horrek esan nahi du, besteak beste, oinezkoentzako guneak bezalako eremuak bereizi egin behar direla, edo kargatzeko eta deskargatzeko ordutegiak kontuan izan, jartzeko eta jasotzeko ordutegi berriak ipini, etab. Orobat, ordenantzaren egitura egungo legeriari egokitu zaio.

Horretarako, 2005eko irailaren 13an, eremu publikoan edo jendearentzako gunetan terrazak eta mahaitxoak jartzako Udal Ordenantza Berria egin zen.

2005eko irailaren 12an, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak gai honi buruzko txosten juridikoa egin du.

**Zuzenbide oinarriak.-**

**13.- Aprobación inicial de la Nueva Ordenanza Municipal Reguladora de la Instalación de Terrazas y Veladores en la Vía Pública o Zonas de Uso Público.**

**Antecedentes.-**

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada con fecha 4 de abril de 1984, acordó aprobar la *Ordenanza Reguladora de la instalación de mesas de café y veladores en espacios públicos.*

No obstante, resulta necesario actualizar dicha ordenanza a los criterios sociales vigentes en estos momentos, lo que ha implicado entre otros asuntos, diferenciar distintos espacios como pueden ser las zonas peatonales, o tener en cuenta horarios de carga y descarga, establecer nuevos horarios de instalación y retirada, etc. De igual forma la estructura de la ordenanza se ha adaptado a la actual legislación vigente.

Para ello, con fecha 13 de septiembre de 2005, se ha formulado el proyecto de Nueva Ordenanza Municipal Reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública o zonas de uso público.

Con fecha 12 de septiembre de 2005, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, ha emitido informe jurídico al respecto.

**Legislación aplicable.-**

Tokiko Araubide Oinarrien Lege-arautzailearen 4.1.a), 22.2.d), 25.1 eta 25.2.h) eta l), 47.1, 49, 69.2, 70.2 eta 84 artikuluetan xedatutakoa; Tokiko araubide-gaietan indarrean dauden lege-zehapenen Berreginiko Testuaren 55 eta 56 artikuluak; FAAren 172. artikulua eta Tokiko Udalbatzen zerbitzu-erregelamenduaren 5. artikulua eta ondorengoak.

Hirigintza batzordearen proposamena ikusitakoan.

Ondokoak mintzatu dira:

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) idazkari jaunarekin Hirigintza batzordean ordutegiari buruzko proposamena jada sartuta dagoela egiaztatu ondoren, kasu honetan Ordanantzaren 8. Artikuluaren 8.2 parrafoaren aldaketa proposatu nahi duela esan du. Izan ere, establezimendu bakoitzeko gutxienez LAU (4) mahai izan beharrean BI (2) izatea proposatzen du. Hori horrela, berak dioenez batzordean bazeuden minimoa bi izatearen aldekoak, udal teknikarien irizpidea aintzat hartuz gutxienez lau izan behar zutenaren aldekoak zeuden bezalaxe. Horien ustez bi mahai bakarrik jartzeak toki eskasak hartzera eraman dezake, apinketa aldetik itxuragabeak, etab. Berak, hala ere, uste du merezi duela bi mahaitxora murriztea, eta horregatixe egiten die proposamen hau alderdiei.

La legislación aplicable viene establecida en los artículos 4.1.a), 22.2.d), 25.1 y 25.2.h) y l), 47.1, 49, 69.2, 70.2 y 84 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F. y artículo 5 y siguientes del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

Se producen las siguientes intervenciones:

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) tras confirmar con el Sr. Secretario que efectivamente la modificación que se propuso en la Comisión de Urbanismo referente al Capítulo 5 en relación a los horarios está ya incluida en la propuesta, continúa manifestando que quiere proponer en este caso una modificación de la Ordenanza en el párrafo 8.2. del artículo 8 en el sentido de que, en lugar de CUATRO mesas por establecimiento, sea “DOS (2) el número mínimo de mesas autorizado”. Había personas en la Comisión que opinaban que era más oportuno reducir ese mínimo a dos, aunque otros pensaban que era mejor que fueran cuatro, sobre todo siguiendo el criterio de los técnicos municipales, quienes decían que poner solo dos podía dar lugar a que se utilizaran espacios poco dignos, poco ornamentales, etc. A

pesar de ello entiende que merece la pena reducirlo solo a dos y por eso realiza esta propuesta a los Grupos.

* Maestro jaunak (EB-IU) barkamena eskatu du ordutegiaren afera ez zutelako espedientean jasoa eta orain alkate jaunak aitatu duelako. Bestalde orain alkateak eginiko proposamenaren inguruan, uste du Hirigintza sailean hasiera batean pentsatzen zen terraza bat osatzeko garaian gutxienez lau mahai behar zirela, alabaina establezimenduetako jabeek bi izatea eskatu badute, eurek ez dute eragozpen handiegirik ikusten horrela izan dadin. Aurreko Ordenantza, denek dakizuen moduan, duela 20 urte baino gehiago sartu zen indarrean, eta ondorioz, zaharkiturik geratu dela uste du. Horrela, bere aburuz, orain mahaitxoei eta ordutegiei dagozkien kontuak askozaz hobeto mugatzen dira. Kalean jarriko diren mahaitxoek ez dutela binilozkoak izan behar jartzen da, eta ordaindu behar dutena ere arautzen da, hain zuzen jabe askok ez zutelako betetzen, eta gune berezi batzuetan bakarrik kobratzen zen, orain, aitzitik, bestelako kategoria dutenek ere ordaindu beharko dute. Bere aburuz, herrian eguneroko erabilera bat zena eguneratzen ari dira, eta ondorioz, alde bozkatuko dutela, esan du.

* El Sr. Maestro (EB-IU) manifiesta que pide disculpas por lo comentado por el Sr. Alcalde referente a los horarios, ha sido una buena advertencia pues se les había pasado y no lo habían incorporado al expediente. En relación a la propuesta que el Alcalde realiza ahora, en principio desde el Departamento de Urbanismo se pensaba que a la hora de formar una terraza el mínimo debía ser de cuatro mesas, pero si ha habido peticiones por parte de los propietarios de que por razones obvias deben ser dos, no tienen mayor inconveniente en que sea así. La anterior Ordenanza, como todo el mundo sabe, lleva en vigor más de 20 años y está obsoleta, ahora se pretende limitar lo referente a veladores, los horarios se fijan mucho mejor, se establece que las mesas que se coloquen en la calle no deben ser de materiales como el vinilo, y también se regula la cuestión del pago, pues muchos propietarios no cumplían con el mismo, y se limitan una serie de zonas, entendidas como de categoría especial a la hora de pagar y los que tienen categoría diferente y tendrán que pagas asiduamente. Cree que se está actualizando algo que ya es un uso cotidiano dentro del municipio y por tanto votarán a favor.

* Peralta andreak (PP) dionez, negoziazioak eman direla ikusten

* Interviene la Sra. Peralta (PP) manifestando que, no tienen

dutenez, alde bozkatuko dute.

nada que decir, ya ven que ha habido negociación y van a votar a favor.

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ez dela negoziaziorik eman esan du, bakarrik hori zela egokiena esan diote, eta berak, ametua eman du. Berak horri ez dio negoziatzea deitzen, borondate oneko keinu bat baizik.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que no ha habido ninguna negociación, simplemente le han comentado que era lo más oportuno y se ha dejado convencer. Personalmente a eso no le llama negociar, sino un gesto de buena voluntad.

* Peralta andreak (PP) erantzun du esanez pozten dela, izan ere, bere ustez, tabernarientzako oso aukera ona delako, batez ere auzoko bazterrekoentzako, esan du.

* La Sra. Peralta (PP) responde que se alegra mucho porque es una opción muy buena para los demás bareros, sobre todo para los de la periferia.

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, bere garaian gutxienez lau mahai jartzearen aldekoa zen, hain zuzen, zerbitzu teknikoek horrelaxe proposatzen zutelako. Beraien ustez, horrek oso apaingarriak izaten ez diren txoko txikien sorketa saihestuko zukeen. Berak ere halaxe uste zuen eta horregatik onartu zuen. Aldiz, gaur gutxienez bi mahai jartzeko proposamena egin diete, eta onartu du, eta pozten da besteak ere horrekin bat datozelako.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que en su día, defendía que fueran cuatro mesas porque así lo proponían los servicios técnicos y porque creía en sus argumentos ya que decían que eso evitaría pequeños txokos no demasiado ornamentales. Lo creía honestamente y por eso lo aceptó, hoy se le ha propuesta bajar ese mínimo de mesas a dos y lo ha aceptado, y se alegra además si todos están de acuerdo.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi duenez beharrezkoa zen esparru hau arautzea. Batzordean, dio, bere alderdiak, EArekin batera, gutxiengo mahaiak bi izatearen aldeko azaldu ziren. Eurek ulertzen dute teknikariek aitatutako apaintasun afera, baina uste dute hau ez dela kontuan hartu beharreko

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que entienden que era necesaria una regulación de este ámbito. En la comisión su Grupo apostó junto con EA para que se redujera el número de mesas de cuatro a dos, entienden el criterio ornamental de los técnicos, pero consideran que no es únicamente este

irizpide bakarra. Euren iritziz, herri honetako orografia den bezalakoa delako, ezinezkoa zaie bi mahai baino gehiago ipintzea, batzuek sarreraren bi aldetann bat besterik jartzeko lekurik ez dutelako hori ere ezinezkoa dute. Euren ustez ez zen zuzena establezimendu hauek gutxienez lau mahaiena ordaintzea bi baino ezin zutelarik jarri. Bestalde, euren ustez, bada Ordenantza behar bezala jasotzen ez duen kontu bat, eta hori lizentzien afera da. Euren aburuz, zuzenagoa izango litzateke ostalariei aukera ematea sasoiko lizentzia edo urteko lizentzia hartzeko. Uste dute askok urte guztian jarri ahal izango zuketela eta diru aldetik irabaziak erdietsiko lituzketela, baina aitzitik, beste hainbatek, berriz, ez luketela aterako. Euren aburuz ez da dirua biltzeko afera kontuan hartu behar bakarrik, eta ildo horri jarraiki, pentsatzen dute Gobernu Taldeak etorkizunean, egin beharreko zundaketa egitea eta berraztertzea sasoiko lizentzien afera. Bestalde, PPko ordezkariak aitatu duen negoziazioaren inguruan zera du esateko: ez zela eman, Alkateari eskaera bat egin zitzaiola, egokiagoa izango litzatekeena adierazi ziotela. Eta alkatearen aldetik jarrera irekia aurkitu zuten, eta hortaz poztu egiten direla, gaineratu du. Hori horrela, etorkizunean ere jarrera ireki hau izatea itxaroten dute. Ondorioz, %100ean hasetzen ez dituen ordenantza bat baldin bada ere, eta etorkizunean sasoiko lizentzien afera berrikusia izango delakoan,

criterio el que debe primar. La realidad es que en este Pueblo existen establecimientos hosteleros que por la geografía donde están situados es imposible que pongan más de dos mesas, algunos incluso es imposible que pongan tan siquiera dos porque únicamente pueden poner una a cada lado de la entrada y punto. Pensaban que era injusto que estos establecimientos tuvieran que pagar un mínimo de cuatro mesas cuando es materialmente imposible que pudieran utilizarlo. Hay una cuestión que siguen considerando que la Ordenanza no recoge como debiera, que es el tema de las licencias. Entenderían más correcto que se diera la posibilidad a los hosteleros de optar a licencia de temporada o licencia anual. Entienden que hay muchos que hacen uso y sacarían provecho económico de la terraza todo el año, pero también hay otros muchos que no. Entienden que no debe ser únicamente el afán recaudatorio el que les impulse y rija esta Ordenanza y esperan que el Equipo de Gobierno, en el futuro, haga el sondeo que tenga que hacer y pueda reconsiderar el punto de las licencias de temporada. Por otro lado señala que negociación, como ha manifestado la portavoz del PP, efectivamente no ha habido, se hizo una petición al Sr. Alcalde, se le expuso lo que consideraban más correcto y lo cierto es que se han encontrado con una postura de no cerrazón, de lo cual se alegran y esperan que esta postura abierta sea la que rija también en el futuro. Pese a ser una ordenanza que no les convence al 100% y con la esperanza

alde bozkatuko dute.

de que en el futuro se reconsidere el tema de las licencias de temporada, van a votar a favor

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) nabarmendu nahi du kontu hau ez dela diru-bilketara bideratua, besteak beste, erabat deskuidatuta egongo liratekeelako Udalaren arazo ekonomikoak ordenantza mota hauek ipiniz konponduko liratekeela pentsatuko balute. Gauza ororen gainetik zera uztartu nahi dituzte: ostalarien nahia eta herritarren deskantsua eta lasaitasuna, eta aldi berean egunetik egunera zabaltzen ari den ohituraren alde egin, hots, herritarrek gero eta gustoagoa dute terraza mota hauetan egotea. Eta egunen egunekoak erakusten badu zerbait zuzendu behar dela, bada aldatu egingo dute inolako zalantzarik gabe.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifiesta que por matizar quiere dejar claro que no existe ningún afán recaudatorio porque, entre otras cosas, estarían totalmente equivocados si quisieran resolver los posibles problemas económicos del Ayuntamiento en base a una ordenanza de este tipo. Se intenta compaginar, por encima de todo, la lógica aspiración de los bareros, el indispensable velar por el descanso y la tranquilidad de los vecinos y al mismo tiempo favorecer un hábito muy extendido y que va a más, como es que a la ciudadanía le apetece y disfruta en estas terrazas. Por supuesto que si la práctica demuestra que hay que corregir, en ningún momento va a haber ningún afán de mantener lo que no se deba mantener.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ordenantzaren 8. artikuluko 8.2 paragrafoa aldatzeko eginiko proposamena sartu ondoren, hau da, establezimenduko gutxienez baimendutako mahaiak LAU (4) mahai beharrean, BI (2) izan daitezela.

Incluída la propuesta del Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) de modificar la Ordenanza en el párrafo 8.2. del artículo 8 en el sentido de que, en lugar de CUATRO mesas por establecimiento, sea "DOS (2) el número mínimo de mesas autorizado".

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación, por unanimidad

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

1. Hasierako onespena ematea **Eremu publikoan edo jendea ibiltzeko lekuetan terrazak eta mahaitxoak jartzeko Udal Ordenantza Berriari,** espedientean eranskin gisa jasota dagoena.

*1º.- Aprobar inicialmente el proyecto de* **Nueva Ordenanza Municipal Reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública o zonas de uso público***, que se adjunta como anexo al expediente.*

2. **Jendaurrean jartzea** 30 egunez jendeak erreklamazioak egin ahal izateko, beti ere horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen den egunkarian eta Udaletxeko iragarki-oholean argitara eman ondoren. Norbaitek erreklamaziorik egingo balu Udalbatzak erabakiko luke, eta inork ez balu egingo, berriz, Ordenantza Berria behin-betiko onartutzat joko litzateke.

2º.- **Exponerla** a información pública por el plazo de 30 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia, así como en el Tablón de Anuncios Municipal, a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la Corporación. De no producirse, la Nueva Ordenanza se considerará definitivamente aprobada.

**14. Traba arkitektonikoak eremu publikoan igogailuak jarriz kentzeko diru-laguntzak emateko Ordenantza hasiera izaeraz onartzeko proposamena.**

**14.- Aprobación inicial de la Ordenanza de Subvenciones para Eliminación de Barreras Arquitectónicas mediante la instalación de ascensor en espacios públicos.**

**Aurrerakinak.-**

Errenteriako Udala irisgarritasunaren inguruan hainbat egintza egiten ari da. Hots, laguntzak emateko hainbat ordenantza onartu ditu, eta obra publikoak egin eremu publiko, parke eta lorategietara (oraingo eta lehengoetara) heltzeko moduko bideak egitearren. Hala ere, lurraldearen ezaugarri fisikoak direla eta, zaila da, batez ere auzo zenbaitetan,

**Antecedentes.-**

El Ayuntamiento de Errenteria viene realizando diversas actuaciones en materia de accesibilidad, aprobando diversas ordenanzas para la concesión de ayudas, y emprendiendo obras públicas con el fin de dotar de accesibilidad a las vías públicas, parques y jardines, tanto de nueva creación como en los existentes. No obstante, por las características

egokitze-lanak egitea eta bertara joateko modukoak egitea.

físicas del territorio, es complicado, sobre todo en ciertos barrios, conseguir adaptar ciertos tránsitos y así hacerlos accesibles.

Arazo horiek konpontzeko asmoz, udal zerbitzu teknikoek *Errenteriako jabekideen komunitateari eremu publiko eta bizilekuetara joateko tartean traba arkitektonikoak igogailuak jarriz kentzeko diru-laguntza emateko deia eta onarriak arautuko dituen ordenantza-zirriborro berezia.*

Con el objetivo de solucionar dichos problemas, desde los servicios técnicos municipales se ha elaborado un borrador de *Ordenanza específica reguladora de la convocatoria y de las bases de la concesión de subvenciones a comunidades de propietarios de Errenteria para eliminación de barreras arquitectónicas entre la vía pública y los accesos a edificios residenciales mediante la instalación de un ascensor*.

2005eko irailaren 14an, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak eta udal bulego tekniko zuzendariak elkarrekin onartzearen aldeko irizpena eman zuten.

Con fecha 14 de septiembre de 2005, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella y el director de la oficina técnica municipal emiten informe conjunto favorable a su aprobación.

Udal kontu-hartzaileak ere egin du berari zegokion txostena.

Tras el informe de Intervención.

**Zuzenbide oinarriak.-**

**Legislación aplicable.-**

Tokiko Araubide Oinarrien Lege-arautzailearen 4.1.a), 22.2.d), 25.1 eta 25.2.h) eta l), 47.1, 49, 69.2, 70.2 eta 84 artikuluetan xedatutakoa; Tokiko araubide-gaietan indarrean dauden lege-zehapenen Berreginiko Testuaren 55 eta 56 artikuluak; FAAren 172. Artikulua eta Tokiko Udalbatzen zerbitzu-erregelamenduaren 5. artikulua eta ondorengoak; azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak emateko orokorra, eta batez ere, 2, 3 b), 8,

La legislación aplicable viene establecida en los artículos 4.1.a), 22.2.d), 25.1 y 25.2.a) y d), 47.1, 49, 69.2, 70.2 y 84 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F. y artículo 5 y siguientes del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales. Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de

9,13, 14, 17, 18, 22, 31 eta 34 artikuluak.

Subvenciones, y más específicamente sus artículos 2, 3 b), 8, 9,13, 14, 17, 18, 22, 31 y 34.

Hirigintza batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Urbanismo.

Ondokoak mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino jaunak, alkateak, (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) gogorarazi du hasiera batean gaia udalaren jardueran sartzea zaila zela, eta zerbitzu juridikoek lana handia egiten dute berori erabat legezkoa izan dadin. Era berean, aspaldidanik lana egin dute Gobernu Taldea kezkatzen zuen aferari konponbidea aurkitzeko, hots, udalerriko traba arkitektonikoak ahal denean kentzeko, orografiagatik eta aurreko urteetako hirigintza-historiagatik oraindik asko direnez, aurrerantzean ere horretan jardun beharko dutenak.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) recordando que es un tema que en un primer momento tenía difícil encaje en la actividad municipal y se ha trabajado mucho desde los servicios jurídicos para darle una forma totalmente legal, como no podía ser de otra forma. Pero también se ha trabajado para dar salida a algo que desde hace tiempo ha movido al Equipo de Gobierno y que se trata de eliminar cuanto sea posible las barreras arquitectónicas del municipio, que por desgracia, por su orografía y por la historia urbanística de años pasados todavía son muchas y tendrán que seguir trabajando en ello.

* Maestro jaunak (EB-IU) adierazi duenez bat dator alkate jaunak esandakoekin. Bere ustez ordenantza honekin gaur egun biztanleen komunitate zenbaiten ezkaratzetara heltzeko traba arkitektonikoak kendu ahal izango dira. Bere ustez –besteek ere hala pentsatzen dutela uste du- bizilagun orok du eskubidea euren ezkaratzetara bide publikotik traba arkitektonikorik gabe heltzeko. Horrela, Udala, Hiri Mantentze sailaren bidez, lehendik jasotako

